Durango, 1.937'gn. 3 - 20'an

Lafitte'tar Pieŕe, jauna.
Ustaritz'en

Eskualkale zintzo ta maite ori, agur:

Idazki onen bidez mezede aundi eta eskari bero bat eskatu bear dizut. Zure laguntza oso beaŕa daukat, ez det ezagutzen beste adiskide on-ta... Oŕegaitik zuregana jotzen det ba-da.

Auxe da: Orain dala sei ilabete, nai ta nai ez, Donosti'tik alde edo atera giñan, faxistak sartu ziranian jakiña. Baiño ori gutxiena da; nere guraso ta aŕebak, tamalez edo zoritxaŕez, an gelditu zitzaigun. Aien beŕiak jakin nai nuke; ortarako nere sendi maiteentzat idazki bat idatzi izan det; eskutitz ori emen bertan dijoakizu.

Zuk ikusiko dezu, mezedez, nola bidaldu leike, nik ez dakit beste bide au baiño "segurogoa". Poza asko emango dazu nere gogo eder au lais

ter edo beteken ba-dezu.

Uste det aituko zendula nere osaba maite zan Ariztimuño-'ri faxistaŕak nola il zioten. Gizajoa ez zun olakorik merezi; ainbeste gauz eta lanak egin zitun gure euskaltzaleenzat, gure abeŕienzat... Jaungoikoak bere aldamenian edukiko dio, noski.

Ta neri emen nazu lau iľabete dirala gudarien artean. Nere emazte ta semetxo maiteak Durango'n, Bizkaia'n dauzkat.

Eskatutako lantxoa lenbailen egingo didaculakoan nazu. Artu zazu gure eskeŕ onak.

Zure erantzunen zai bitartean, agurtzen dizu

Aiue'tar Eustasio

Zuzenbidea:
Calle Conventos, 4-2º dcha.
Durango